

**Dantzan Bilaka** Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Sorkuntza Koreografikoaren deialdian aukeratutako proiektu anitzentzat laguntza eta sorkuntza testuinguru programa bat da. Programa, urtean zehar garatzen da hainbat ekintzen bidez (tailer irekiak, prozesuen tutoritzak, bukaera jardunaldiak) horrek guztiak dantza komunitatearen topaketa errazten du, eta bere bueltan praktiken hausnarketa eta haintzatespena sortzen du. 2019. urtean koordinazio taldea Luciana Chieregatik, Ion Munduatek eta Asier Zabaletak osatzen dute eta kudeaketa ADDE: Euskal Herriko Dantza profesionalen Elkarteak egiten du. Edizio honetan Tabakaleraren eta Azkuna Zentroaren laguntzarekin kontaktzen dugu.

## COREOVERSACIONES Thiago Granatorekin laborategia

Espekulazio kontzeptualaren bitartez, mugimenduaren ikerketa, konposizio koreografikoa eta idazketa performatiboa, Thiago Granatok bere sorkuntza metodologiak partekatuko ditu, non, genealogia, autoretza, jabetza, dantza garaikidearen presentzia eta gabeziei buruzko eztabaidak bakarkako edo taldeko praktika performatiboetan txertatuko diren.

**Gehienezko partaideak:** Gehienez 20 pertsona.

### Egunak eta orduak:

Ekainak 28 ostirala (16tatik 20tara)

Ekainak 29 larunbata (10tatik 14tara eta 16tatik 20tara)

Ekainak 30 igandea (10tatik 14tara)

**Lekua:** Lantegia 1 Aretoa. Azkuna Zentroa, Bilbo.

**Prezioa:** 30€

Izen-emateak [info@addedantza.org](mailto:info@addedantza.org) helbidean ekainak 24 astelehena arte.



Thiago Granato brasilgo dantza artista bat da, mugimendua garatzeko era desberdinekin koreografiak sortzen jarduten da. Bere produkzioak, berrikuntza estetikoaren bidez eraldaketa politikoak sustatzeko esperientziak nabarmentzen duten prozesuen emaitza dira. Bere lanak Hego Amerikan, Europan, Ekialde Ertainan eta Asian aurkeztu dira. Koreografia ikasketak Ex.e.r.ce 8 programetan ikasi zuen Centre Chorégraphique National de Montpellier (Frantzia) eta NPP – New Performative Practices Master Programme, DOCH - Universidade de Dança e Circo de Estocolmo (Suedia). 2013 eta 2015eko denboraldian, Akademie Schloss Solitude Stuttgart (Alemania) eta Centre International des Récollets Paris (Frantzia) artista egoliarra izan zen. Egun Berlinen bizi da (Alemania).

[www.thiagogranato.com](http://www.thiagogranato.com)